



Aspalditxoko kale-mutillak

15 irurogei urtetik gora eukiko dau fotografixa honek. Eta gerra zibilla akabo barri izan arren, hemen agiri diran mutil honeik etziran alkarri tiroka jardundakua, alde bateko nahiz besteko frentera fateko gaztetxuak ziran artian eta. Izan be, argazki honetan bando bixetako famelixetako semiak ikusten ditugu batera, jai-egunen batian, korbata, klabelin eta guzti.

Kale-mutillak dira ixa danak: Kale Zahar, Plaza, BakardadekoAma, Kale Barri, Atzeko kale eta Tetuan/Zubibarrikuak, hain zuzen be; Casablancakua dago bat, baiña ordurako auzo hori ixa kalekotzat hartzen zan. Kuadrilla honetatik urten eben **Danok bat** futbol-taldia eta gerora batzuk Aloña-Mendiko jokalarixak be izan ziran. Lauk behintzat Ameriketara joko euen ondorengo urtietan: Venezuelara, Txilera, Estatu Batuetara eta Argentinara. Nahiz eta geraketa diran danak laurogei urtetik gorakua izan, erdixak bizi dira oraindiok.

Honeitxek dittuzue ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Zutik: Juan Mari **Lizaur**, Kale Zaharreko Arkitektuenekua; Joxe **Beitia**, Kale Zaharreko Kastillonekua; Luis **Bedia**, *Kafeto*, mondragueta eta Plazako Kafeko illobia; Antonio **Izaga**, Bakardadeko Ama kalekua; Felipe **Otamendi**, Casablancakua; Juanito **Ibarrondo**, Atzeko kalekua; Xabin **Irizar**, debarra eta Kale Zaharreko Bernardo panaderuaren illobia; Periko **Oleaga**, Tetuan/Zubibarrikuak.

Belauniko: Periko **Altuna**, Itturritxoko Altunatarrenekua; Enrike **Arana**, *Porru*, Elorrixon jaixo eta txikittatik Oñatiko Kale Zaharrian hazittakua; Joxe Migel **Urtaza**, Kale Barriko Kirriñenekua; Xabin **Zelaia**, Atzeko kalekua; Roberto **Zulueta**, Kale Zaharreko Uriartenekua; eta Juanito **Lizaur**, Bakardadeko Ama kalekua.

Argazkixa San Martiñen atarata egongo da, atzekaldian Natalio Maiztegiren Mojasoroko txabolbia eta Murgixa aldeko baserri eta parajiak agerketan diralako.

J. E.

Fotografixa Enrike Aranak eskuratu dosku, eta argibidiak Enrike berak eta Juanito Ibarrondok. Milla esker!